

"Pirinioetako garapen jasangarria mugaz bestaldeko lankidetzaren europar politikaren esparruan: INTERREG IIIA" mintegiaren kronika

(Chronicle of the Seminar of INTERREG IIIA)

BURGAÑA AGOUES, Jon

Urdaneta, 15, 1.
20800 Zarautz
jonbua@mixmail.com

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 53-58]

Zace-Tap Pirinioak antenak, INTERREG IIIA ekimen komunitarioari buruzko mintegia antolatu zuen 1999ko maiatzaren 18 eta 19an Jakan. Bertan, ekimen honen kudeaketan eta egitasmoetan lanean diharduten hainbat pertsonak hartu zuten parte, mugaren alde batekoak eta bestekoak. Mintegi honen edukia bitan bana genezake: batetik, INTERREG IIaren ebaluaketa bat egin zen eta hobe litezkeen alderdiak zehaztu ziren (ahal den neurrian INTERREG IIIA berria jasoko direnak); bestetik, ekimen berriaren nondik norakoak azaldu ziren; besteak beste, helburuak, aurreikuspen ekonomikoa, kudeaketa-sistema, egitasmo-motak, e.a.

Zos días 18 y 19 de mayo de 1999 tuvo lugar en la ciudad de Jaca el Seminario sobre la iniciativa comunitaria INTERREG IIIA, organizado por la antena Lace-Tap Pirineos, en el cual participaron diversas personas procedentes de ambos lados de la frontera franco-española involucradas en este proyecto. En el Seminario se hizo una evaluación del INTERREG IIA, señalando al mismo tiempo los aspectos mejorables que se tratará de insertar en el INTERREG IIIA, y se expusieron los pormenores de la nueva iniciativa, tales como sus objetivos, la previsión económica, el sistema de gestión, los tipos de proyectos, etc.

Zes 18 et 19 mai 1999 a eut lieu dans la ville de Jaca le Séminaire sur l'initiative communautaire INTERREG IIIA, organisé par l'antenne Lace-Tap Pirineos, auquel prirent part diverses personnes en provenance des deux côtés de la frontière franco-espagnole participant à ce projet. Au cours de ce Séminaire on fit une évaluation de INTERREG IIA, signalant en même temps les améliorations à insérer dans INTERREG IIIA, et l'on exposa les détails de la nouvelle initiative, tels que ses objectifs, la prévision économique, le système de gestion, les types de projets, etc.

1. Sarrera. 2. INTERREG IIIAren norabide eta ikuspegi berriak eta bere egitarau operatiboaren printzipio nagusiak. 3. Mahai ingurua eta lantaldeak. 4. INTERREG IIIArentzat mugaz bestaldeko lankidetzarako egituren beharra. 5. Azken ondorioak.

1. Sarrera

Lace-Tap Pirinioak antena¹, azken hiru urteetan, mugaz bestaldeko lankidetzaren² gaiaren hainbat alderdiei buruzko zenbait mintegi antolatzen ibili da. Zehazki, antenak, bere baitan mugaz bestaldeko lankidetzaren sustapen eta laguntza teknikoan duen funtzioan, 1998ko maiatzan Zaragozan honako mintegia antolatu zuen: "INTERREG ekimen komunitarioa eta mugarteko lankidetzaren Pirinioetan". Aurrerago, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, 1999ko urtarrilan, Irunen "Mugaz gaineko Estatuaren arteko esperientzia eta egiturak" izeneko mintegia gauzatu zen eta 1999ko martxoan, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzarekin batera antenak beste mintegi bat egin zuen, INTERREG IIaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutako egitasmoen inguruko iritzien elkartrukatetari buruzkoa.

Azkenik, ohartuz alde batetik 1999. urte honetan INTERREG ekimen komunitarioaren bigarren bertsioak edo INTERREG II delakoak amaiera duela, 1994. urteaz geroztik indarrean egon ondoren, eta bestetik, jabetuz Europar Batasuneko agintari politikoek dagoeneko ekimen komunitario honen hirugarren argitalpena onartu eta gutxi gora-behera ildo nagusiak finkatu dituztela Ajenda 2000ren barruan, Lace-Tap Pirinioak antenak egoki iritzi zuen beste mintegi bat egitea. Mintegi horren xedea Pirinioen esparruan INTERREG IIA praktikan aurrera eramane duen Frantzia-Espainia Egitarau Operatiboaren (Frantzia-Espainia EO, aurrerantzean) behin betiko balantzea egitea zen, eta era berean, INTERREG IIIA izango denaren zenbait trazu eta berrikuntza aurreratzea. Horrela bada, Jakako herri piriniar ezagunean, 1999ko maiatzaren 18 eta 19an, "Pirinioetako garapen jasangarria mugaz bestaldeko lankidetzaren europar politikaren esparruan: INTERREG IIIA" izenburupean egin zen mintegia.

Jakako kongresu-jauregian egindako mintegian, ehun lagun inguruk hartu zuen parte. Alde batetik, bertan izan ziren mugaren alde bateko eta besteko Herri-Administrazio

“ Mintegi horren xedea Frantzia-Espainia Egitarau Operatiboaren balantzea egitea zen, eta INTERREG IIIA izango denaren zenbait trazu eta berrikuntza aurreratzea ”

desberdinetako kargu politiko eta funtzionarioak, INTERREG IIaren dirulaguntza komunitarioen kudeaketaren arduradunak edo/eta horien onuradunak gehienak; eta bestetik, mugaren alde bateko eta besteko erakunde eta elkarte publiko nahiz pribatuetako partaideak, partenerio gisa Frantzia-Espainia EOren inguruan mugaz bestaldeko egitasmoak aurrera eramane dituztenak. Azken talde honen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun martxan dauden mugaz bestaldeko lankidetzako hiru egitasmo nagusien arduradunen presentzia eta partehartze aktiboa azpimarratu nahi genuke zalantzarik gabe, hain zuzen ere, Gipuzkoan gauzatzen ari diren Baiona-Donostia Konurbazioa, Bidasoa-Txingudi Eurobarrutia eta Eusko Ikaskuntzaren egitasmoak.

2. INTERREG IIIAren norabide eta ikuspegi berriak eta bere egitarau operatiboaren printzipio nagusiak

Derrigorrezko aurkezpen protokolarioen ondoren, zuzenean edukietan murgildu zen entzuleria, 2000. urtetik aurrera INTERREG ekimen komunitarioaren hirugarren argitalpenaren nondik norakoak adierazten zituen aurkezpen labur baten bitartez. Europar Mugarteko Eskualdeen Elkartearen (EMEE-ARFE) idazkari nagusiak, Jens Gebbek, INTERREG IIIren zenbait alderdi berri aurreratu zituen, besteak beste,

1. "Mugaz bestaldeko lankidetzaren" esakundea terminoa erabili da kronikan zehar, gaztelaniazko "cooperación transfronteriza" adierazteko.

2. Lace-Tap, "Linkage Assistance and Cooperation for the European Border Regions, Technical Assistance Project" da eta Europar Mugako Eskualdeen Elkarteak (EMEE-ARFE) sortutako laguntza tekniko eta mugaz bestaldeko lankidetzaren bultzatzeko proiektu bat da.

finantziaketa, ekimenaren lehentasunak, EOen kopurua, kudeaketa... Ekimen berri hau 2006. urterarte luzatuko dela aurreikusten da, eta hasiera batean 5000 milioi eurotako aurreikuspen ekonomikoa izango du Europar Batasun osorako. INTERREG IIan gastatutakoa baino 1700 milioi euro gehiago gastatuko dira eta honek argi eta garbi islatzen du ekimen honek duen garrantzia Europar Batasuna osatzen duten Estatu guztien arteko integrazioa maila guztietan lortzeko herri-politika edo tresna gisa. Izan ere, eta Jens Gebben esanetan, Ajenda 2000k bultzatutako Fondo Estrukturalen erreformaren ondoren, INTERREG da ekimen komunitarioen artean oraindik mantentzen den bakarretakoa.

Ekimen berria, aurrekoa bezala, hiru sail edo alderditan banatzen da, baina oraingoan, INTERREG IIrekin alderatuz, bestelako lehentasunak jasotzen ditu: 1 edo A alderdia bakarrik mugaz bestaldekoa da eta, besteak beste, enpresa txiki eta ertainen arteko elkarlana, komunikazioak, giza-baliabideak, kultura, osakidetza, ingurugiroa, euroerregio edo Pirinioetako Lan-Komunitatearen gisako mugaz bestaldeko egiturak, eta lehen alderdi honetan nabarmena izan beharko lukeen udal-partehartzea gisako hainbat ekintza jasotzen ditu; 2 edo B alderdiak nazio gaineko izaera du eta helburutzat mugarteko lurraldeen integrazio ekonomikoa dauka, baina ekintza eta estrategia motak nazio gainekoak dira; 3 edo C azken alderdia erregio edo lurraldeen artekoa da eta euren ekintzak mugartekoak ez diren lurraldeetara zabaltzen dira, baina kasu honetan mugaz bestaldeko eta nazio gaineko nolabaiteko loturak dituztela.

Azkenik, EMEE-ARFeren idazkari nagusiak, INTERREG III praktikan garatuko duten lurralde Egitarau Operatiboaren gorakada iragarri zuen, izan ere 50 izatetik 80 edo 90 izatera pasako baitira, eta horrela zehaztasun gehiagoz jasoko dira mugarteko lurralde bakoitzaren berezitasunak aurrera eraman beharreko ekintzetan. Ildo honetan, gerta daiteke hemendik gutxira Pirinioetan hiru EO garatzea, Pirinioen ekialdean, erdialdean eta mendebaldean.

INTERREG III berria nola eratuko den laburki aurreratu ondoren, Juan Solerrek, Ekonomia eta Ogasun Ministerioan FEDEReko Administrazio Orokorren Zuzendariordetzako aholkulari teknikoak, Espainiari dagokionez ekimen berriaren zenbait datu zehaztu zituen. INTERREG IIIk fondo bakarreko izaera du, hau da, FEDERetik bakarrik hornituko da; aitzitik, aurreko bi INTERREGek FSE eta FEOGatik izan zituzten diru-sarrerak. Egitarau Operatiboek jarduten duten eremu geografikoari dagokionez, aurreko eremuak mantentzen dira, baina 1-5b helburuen irizpidea aplikatu gabe. Espainiari INTERREG IIIri esleitutako diru-kopuru osoaren %23,3a legokioke gutxi gora-behera, baina

“ ... Ekimen berri hau 2006. urterarte luzatuko dela aurreikusten da, eta hasiera batean 5.000 milioi eurotako aurreikuspen ekonomikoa izango du ”

oraindik inork ez daki ea diru-kopuru hauek estatuei beren osotasunean edo muga jakinei emango zaizkien, beraz oraindik ezin da jakin baliabide ekonomikoen banaketa Frantzia-Espainia eta Espainia-Portugal mugen artean.

Juan Solerrek, halaber, azaldu zuen INTERREG ekimen komunitarioak helburu eta filosofiatzat mugarteko lurraldeen isolamendu bikoitza ekiditea zuela, batetik, mugaz bestaldeko nazioarekiko, eta bestetik, bere nazioko beste lurraldeekiko. Badirudi INTERREG IIIak ere filosofia hau baita ere jasotzen duela, baina badirudi teorikoki soilik dela, izan ere gero ez dira zehazten mugarteko lurraldeen isolamendu hori zuzendu beharko luketen ekintzak. INTERREG IIIan aurreikusten diren ekintza motekin jarraituz, esan behar da ezin ukituzko izaera dutenak bultzatu nahi direla, hala-nola, ekintza kulturalak, giza-baliabidekoak, ezagueren trukaketakoak..., eta bigarren maila batean geratu dira errepideen edo energia-sareen azpiegiturak. Ezin ukituzko ekintza hauen barruan, baita, sustatu egin beharko dira, orain arte egin dena baino neurri handiagoan behintzat, elkarre pribatuak eta Pirinioetako Lan-Komunitatea edo Akitania-Nafarroa-Euskadi Protokoloa gisako egiturak, nagusiki partzuergoaren itxura juridikokoak, baina baita Interes Ekonomikoko Agrupazioen itxurakoak ere.

3. Mahai ingurua eta lan-taldeak

Mahai inguru bat antolatu zen “Administrazio lokalaren eta aktore sozialen partehartzea Pirinioetako mugaz bestaldeko lankidetzan” gaiari eusteko. Partehartzaileak, mugaren alde bateko eta besteko administrazio lokaletako eta enpresaritzan, elkarreketako eta unibertsitateko sektoreetako

ordezkariak izan ziren³ eta abagunea izan zuten INTERREG I eta IIko diru-laguntzen onuradun gisa euren esperientziak elkarri ezagutarazteko. Hausnarketek, erakunde publiko lokal eta pribatuek diru-baliabideei dagokienez oro har duten pisu eskasa agerian utzi zuten, beti ere erakunde berberak Akitania-Nafarroa-Euskadi Protokoloa gisako egitura sendoagoetan duten indarrarekin alderatuz. Konparazio honekin zera adierazi nahi izan zuten: administrazio lokalek eta elkarte pribatuek kudeaketarako pentsatzen zena baino gaitasun handiagoa zutela mugaz bestaldeko egitasmoen garapenean. Partehartzaile bakoitzak, beraz, bere erakundearen barruan aurrera zeramatzen mugaz bestaldeko egitasmoen garrantzia azpimarratu zuen, eta era berean INTERREG IIIan eskuhartze handiagoa eskatu zuten. Eta kezarik ere izan zen Frantzia-Espainia EOaren kudeaketaren alderdiren bati buruz. Hain zuzen ere, Eusko Ikaskuntzako ordezkaria kexu zen Administrazio eskudunaren gehiegizko atzerapenaz, behin mugaz bestaldeko egitasmo bat beteta INTERREGeko diru laguntzak ordaintzeko garaian –Huescako Merkataritza Ganbarako ordezkariak oraindik orain INTERREG leko egitasmo bateko diru-laguntza ez ziotela ordaindu salatu zuen!–.

Aldi honetan eratu ziren lan-taldeak lau izan ziren eta jarraian laburki lan-talde bakoitzak atera zituen ondorioak agertzen dira, Espainia-Frantzia mugarako INTERREG IIIko egitarau eta azpiegitarauetan jaso zitezkeen edukiak zehazteko lana egin ondoren.

• Mendebaldeko Pirinioetako lan-taldeak honako ondorioak atera zituen:

- EOren eremu geografikoari dagokionez, Egitarauaren hutsune bat zuzendu beharko litzateke, EOren lurraldetik at geratzen diren mugaz bestaldeko benetazko egitasmoen bultzatzaile edo partenerioekin zerikusia duena, UPV-EHU eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko egitasmo batekin gertatutakoaren antzera. Azken hau EOren lurralde eremutik kanpo geratzean, egitasmo honek ezin izan zituen INTERREG IIako diru-laguntzak jaso, nahiz eta bultzatzaileen jatorria kontuan hartu gabe egitasmoaren benetako izaera guztiz mugaz bestaldekoa izan. Eta horrek ilogikoa dirudi.
- INTERREG IIA ongi erabili izan dela egiaztatu ahal izan da oro har, alderdi frantsesean apur bat mantsago joan arren egitasmoen martxa.

- Egitasmoen egikaritza eutsiko luketen egitura iraunkorrak bilatzeko beharra ikusten zen (Bidasoa-Txingudi Eurobarrutia edo Baiona-Donostia Konurbazioaren antzekoak), egitasmo zehatzak eta aipatutako egitura horietatik kanpo bilatu aurretik.

- Diruen kudeaketari begira, batetik, fondo komuna duen Akitania-Nafarroa-Euskadi Protokoloa gisako formulak sustatu beharko lirateke; eta bestetik, behin egitasmoak burututa, dirulaguntzen ordainketari azkartasun gehiago eman beharko litzaioke, zor egoerarik ez gertatzeko, Eusko Ikaskuntza erakundeari gertatu bezala.

• Erdialdeko Pirinioetako lan-taldeak honako ondorioak atera zituen:

- EOren azpiegitarauen zurruntasuna salatzen da, eta baita, horren ondorioz eta ilogikoki mugaz bestaldeko zenbait egitasmo INTERREG IIatik at geratzea ere.

- Hurrengo EOak Pirinioetako lurralde bakoitzaren berezitasunak jaso beharko litzuzke.

- Gaur egun zailtasunak daude Administrazio frantsesaren partenerioak identifikatzeko, eta halaber, zailtasun administratiboak agertzen dira egitura komun eta bateratuak sortzeko orduan; baina beharbada horiek gainditu egin daitezke Baionako Tratatuan aurreikusitako egiturei esker.

• Ekialdeko Pirinioetako lan-taldeak honako ondorioak atera zituen:

- Pirinioetako bi aldeetako lurralde-administrazio artean eskuduntzak guztiz desberdinak direla nabaritzen da, eta horrek munta handiko egitasmoen egikaritza zailtzen du.

- Kontraesan nabarmena dago, halaber, kudeaketa komuna bultzatzeari buruz Europar Komisioak dioenaren eta estatuek kudeaketa komun hori lortzeko jartzen dituzten oztopo administratibo eta politikoen artean.

3. Partehartzaileak ondorengoak izan ziren: Administrazio lokaletik, Pau Perdices, Consell General de la Vall d'Arán-eko zuzendari exekutiboa eta Rafael Lassalette, Hendaiaiko alkatea; merkataritza alorretik, Ricardo Oliván Bellostas, Huescako Merkataritza Ganbarako ordezkaria; elkarteen alorretik, Jose Mari Vélez de Mendizabal, Eusko Ikaskuntzako gerentea; eta azkenik, unibertsitatetik, Toulouseko Unibertsitateko ordezkari bat. Moderatzailea: Juan José Grau, Nafarroako Gobernuako Ekonomia Saileko Kanpo Akzioen Zerbitzuko zuzendaria.



Jaca hiriaren ikuspegi orokorra.

- Azkenik, lehenengo lan-taldearen antzera, esan behar da aprobetxatu egin behar direla Pirinioetako Lan-Komunitatea eta Catalunya-Midi-Pyrénées-Languedoc-Roussillon Euroerregioa moduko egiturak.

- Pirinioak bere osotasunean hartzen dituen lan-taldeak honako ondorioak atera zituen:

- Egitasmoen sostengu tekniko handiagoa emateko beharra ikusten da.
- Orokorrean informazio urria dute INTERREG ekimen komunitarioari buruz onuradun berriak izan daitezkeenek, eta hortik letorke onuradun diren herritarren interes eta inplikazio eza. Hau zuzendu beharra legoke.

4. INTERREG IIIArentzat mugaz bestaldeko lankidetzarako egituren beharra

“Mugaz bestaldeko lankidetzarako egiturak” terminoa erabiltzen denean, mugaz bestaldeko lankidetzaren aurrera daramaten antolakuntza iraunkor batzuek ari gara hitz egiten nagusiki: pertsona juridiko baten itxurapean diharduten antolakuntzez, publiko nahiz pribatuak izan.

Pirinioetako Lan-Komunitatea, Catalunya-Midi-Pyrénées-Languedoc-Roussillon Euroerregioa, Akitania-Nafarroa-Euskadi Protokoloa nagusiki, eta Baiona-Donostia Konurbazioa eta Bidasoa-Txingudi Eurobarrutia lurralde-eremu txikiagoan dira Pirinioetan mugaz bestaldeko lankidetzaren garatzen duten egiturak. Eta horiek dira hain zuzen ere INTERREG IIIA bultzatuko eta sustatuko dituenak Pirinioen inguruan, eratuko diren EOen kudeaketa hobea eta eraginkorragoa lortzeko xedez.

Egoera honakoa izanik, gaur egun egitura hauetaz aritzean ezinbestekoa da Baionako Tratatuaren kontuan izatea⁴, eta hain zuzen, Herri-Administrazioetako Ministerioko (MAP) funtzionarioa den Enrique Gómez Campo, Tratatuaren testuaren egile gisa, arduratu zen honakoan testu juridiko horren nondik norakoak azaltzeaz. Tratatuak mugaz bestaldeko lankidetzarako nortasun juridiko publikoa duten hiru egitura berri aurreikusten ditu, esandako lankidetzaren alderdi juridikoak zituen hutsuneak betetzera datozenak: Frantziar, *groupements d'intérêt public de coopération transfrontalière*, *sociétés d'économie mixte locales* eta partzuergoak Espainian (5. artikulua). Esan bezala, nortasun juridiko publikoa duten egitura berri hauek behar batzuk betetzera datoz, egitura politiko eta administratiboetan eta mugaz bestaldeko lankidetzari buruzko legedian; mugaren bi aldeek aitortzen dituzten desberdintasunak gainditzekoak,

4. Entitate lurraldearen arteko mugaz bestaldeko lankidetzarako Espainiar Erreinuaren eta Frantziako Errepublikaren arteko Tratatuaren, Baionako Tratatuaren delakoa, 1995eko martxoaren 10ean sinatu zen Baionan, 1997ko otsailaren 24an indarrean sartu, eta BOEn 59. zenbakian argitaratu zen, 1997ko martxoaren 10ean.

BURGAÑA AGOUES, Jon. "Pirinioetako garapen jasangarria mugaz bestaldeko lankidetzaren europar politikaren esparruan: INTERREG IIIA" mintegiaren kronika. *Eleria*. 6, 2000, 53-58

hain zuzen ere. Bestalde, azpimarratu behar da egitura berri hauek duten izaera publikoa, izan ere Tratatuaren aurretik baziren beste egitura batzuk, izaera pribatukoak ordea. Hain zuzen ere, azken hauek Interes Ekonomikoko Agrupazio Europarrak ziren, 1985eko europar erregelamendu baten ondorioz sortutakoak. Dena den, mugaz bestaldeko egitura publiko batzuen beharra nabaritzen zen, interes komuneko mugaz bestaldeko zerbitzu publikoak hobeto eta berme gehiagoz ustiatzeko. Baionako Tratatu honek, orain adierazitako egitura hauek ezartzen ditu, Enrique Gómez Camposen esanetan.

Udalez gaindiko erakunde juridikoa den partzuergoari buruz, MAPEko funtzionarioak honako arrazoiak emanez justifikatzen zuen bere hautaketa: partzuergoan erakunde publiko eta erdipublikoek eskuhar dezakete; Administrazioen arteko lankidetzarako ohiko tresna da; espainiar zuzenbide administratiboan partzuergoa zerbitzu publikoen kudeaketarekin lotzen da, eta hori Tratatuaren helburuetako bat da mugaz bestaldeko lankidetzan. Erakunde honen inguruan aipatzen zen desabantaila bakarra bere eraentza juridiko eskasa izan zen, eta hain zuzen ere lekuan lekuko estatutuek garatu beharrekoa da hori⁵.

Azkenik, eta mugaz bestaldeko lankidetzarako egiturekin amaitzeko, Catalunyako Generalitateko Kanpo-Harremanetarako Zuzendaritzako Gai Europarretako zuzendari nagusia den Montserrat Ribak hitza hartu eta INTERREG IIIk kudeaketarako egitura bateratu eta komunak bultzatu behar zituela aldarrikatu zuen. Halere, aldarrikapen honekin batera kritikatu zuen Baionako Tratatuak nortasun juridikoa aurrezagutu ez izana dagoeneko kudeaketarako egitura bateratu eta komun gisa lanean dauden Pirinioetako Lan-Komunitate, Catalunya-Midi-Pyrénées-Languedoc-Roussillon Euroerregio eta Akitania-Nafarroa-Euskadi Protokoloari. Zer egin bada elkarte hauek mugaz bestaldeko nortasun juridiko publikoa izan dezaten? Montserrat Ribak egitura hauek partzuergo edo "*groupements d'intérêt public de coopération transfrontalière*"-etan bihurtu zitezela defendatu zuen, baina zertarako hau guztia? Elkarte hauek INTERREG IIIko diru-laguntzak jasoko lituzketen mugaz bestaldeko egitasmoak erakar ditzaten, Herri-Administrazioen eskuetan egon beharrean.

5. Azken ondorioak

1.- INTERREG ekimen komunitarioaren urte batzuetako ibilerarekin eta 2000. urtearen ateetan, oraindik asko geratzen da egiteko mugaz

bestaldeko lankidetzan, mugarik gabeko Europa erdiesteko xedez. Beharbada, "mugarik gabeko Europa" terminoak ez dauka "estaturik gabeko Europa" edo "(euro)erregioen Europa" terminoek duten horrenbesteko karga ideologikoa, baina denek esanahi berdina dutela esatera ausartzen gara. Hausnarketa hau mahairatzen dugu, izan ere kongresu honetan zehar inoiz entzun izan dira kexak, mugaz bestaldeko egiturak eta hitzarmenak gauzatzeko orduan Administrazio Zentralaren partetik borondate politikoaren falta zegoela adierazten zutenak, bere eragin eta boterearen gutxitze bat suposatuko lukeenez. Uste dugu egitura eta hitzarmen hauenganako mesfidantzak gero eta zentzu gutxiago duela Europan.

2.- Oraindik asko dago egitekorik, eta egin daitekeena hain da interesgarria eta apasionantea... Mugaz bestaldeko lankidetzatik behin eta berriz, etengabe, aukera berri eta erronka handiak sortzen dira, zalantzarik gabe mugarteko lurraldeetako biztanleentzat onuragarriak eta aberasgarriak izango direnak. Oraindik orain asko dira truka daitezkeen ezaguerak, ideiak, teknologiak, ondasunak, giza-baliabideak, ohiturak... Esan daiteke mugaz bestaldeko lankidetzan, mugarteko lurraldeetako edozein herritarren buruan etengabe hor agerian eta oso kontuan egon behar lukeen ideia dela, Administrazioa zuzentzen duten politikariengandik hasita, langile xumeena arte.

3.- Nabarmena da, kongresuan zehar ikus ahal izan denez, INTERREGen kudeaketa hobetu daitekeela. Hau lortzearren INTERREG IIIk zenbait neurri jasotzen ditu, besteak beste, Pirinioetako Lan-Komunitatea bezalako mugaz bestaldeko egiturak sustatzea, berengan kudeaketarako gero eta funtzio gehiago bil daitezten.

4.- Kudeaketaren alorrean jarraituz, INTERREG IIIko diru-laguntzak Aldizkari Ofizial desberdinetan argitaratzearen beharra nabaritzen da, horrela ahal den pertsona-kopururik zabalenak diru-laguntza horiek lortzeko lehia dezan, eta batez ere, diru-laguntzen xede egokia berma dadin. Gaur egun pil-pilean dagoen gai bat "linoaren kasua" da, eta ildo honetatik, Eusko Jaurritzako INTERREG IIko arduradunetako batek Fondo Estrukturalen banaketan gardentasun handiagoa egotearen beharra aldarrikatzen zuen.

5. Partzuergoaren eraentza juridikoa benetan eskasa da. Eraentza Juridiko eta Prozedura Administratibo Komuneko Legean, 7. artikulua dio "hitzarmenaren kudeaketarako, antolakuntza komun bat sortzeko beharra ikusten denean, antolakuntza honek nortasun juridikoa izango lukeen partzuergoaren itxura har dezake". 1955eko ekainaren 17ko Zerbitzuetako Erregelamenduak, bere 37. artikuluan, aurreikusten du "...korporazio lokalek maila desberdinetako beste erakunde publikoekin partzuergoak sor ditzakete...".